

Bisfosfonatos en osteoporosis:

¿CUÁNTO DURA EL TRATAMIENTO?

Te recetaron un bisfosfonato (alendronato, risedronato, ácido ibandronico o ácido zoledronico) para tratar la osteoporosis y disminuir así el riesgo de fractura de los huesos (cadera, muñeca, columna vertebral...).



Son medicamentos que se toman durante varios años pero por un periodo de tiempo limitado. Se acumulan en el hueso ejerciendo un efecto protector que se mantiene incluso después de dejar de tomarlos. Su uso prolongado presenta riesgos como fracturas atípicas de fémur y necrosis de mandíbula.

Es necesario reevaluar el tratamiento

Tu médica o médico reevaluará cada cierto tiempo la necesidad de continuar con el tratamiento, dependiendo del estado de tus huesos y de los factores que aumentan el riesgo de fractura: riesgo de caídas, edad, sexo, fracturas previas o familiares con fracturas, tabaco, alcohol, bajo Índice de Masa Corporal (IMC), otros tratamientos como corticoides orales u otras enfermedades.

Con todos estos datos hará un **balance de los beneficios y los riesgos** y, con tu opinión, decidiréis si hay que:

Seguir con el mismo tratamiento



Interrumpir temporalmente (vacaciones terapéuticas)



Interrumpir definitivamente



cambiar a otro medicamento



→ Y recuerda que en la prevención y el tratamiento de la osteoporosis los medicamentos no lo son todo.

Bibliografía:

Osteoporosis postmenopáusica: un consenso necesario. INFAC. 2015;23(4):27-32.

Denosumab y bisfosfonatos. Duración y seguridad. El ojo de Markov. 2017;(63):1-4.

Elaborado por: Iñigo Aizpurua, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^o José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Karmele Pérez, Isabel Porras y Juan Uriarte

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Bisfosfonatoak osteoporosian:

ZENBAT IRAUTEN DU TRATAMENDUAK?

Osteoporosia tratatzeko eta hezurak hausteko arriskua murrizteko (aldaka, eskumuturra, bizkarrezurra...) bisfosfonato bat errezetatu zizuten: alendronatoa, risedronatoa, azido ibandronikoa edo azido zoledronikoa.

Urte batzuetan zehar baina denbora-tarte mugatu batean hartu beharreko medikamentuak dira. Hezurrean metatzen dira eta efektu babeslea eragiten dute. Babes-efektu horrek tratamendua kendu eta gero ere irauten du. Medikamentu hauek denbora luzez erabiltzeak arrisku batzuk eragin ditzake: femurraren haustura atipikoak eta masailezurreko nekrosia.

Tratamendua aztertzea beharrezkoa da

Zure medikuak, aldian-aldian, tratamenduarekin jarraitzeko beharra dagoen ala ez aztertuko du, zure hezurren egoeraren arabera eta hezurak hausteko arriskua handitzen duten faktoreak kontuan hartuta: erortzeko arriskua, adina, sexua, aurretik izandako hausturak edo hausturak izan dituzten senideak, tabakoa, alkohola, Gorputz Masa Indize (GMI) baxua, beste tratamendu batzuk (aho bidezko kortikoideekin adibidez) edo beste gaixotasun batzuk.

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, zure medikuak **arriskuen eta onuren balantzea** egingo du eta zure iritzia jakinda, ondorengo erabakiko duzue.

Tratamendu berdinarekin jarraitzea



Denbora tarte baterako kentzea (opor terapeutikoak)



Tratamendua betiko kentzea



Beste medikamentu batekin ordezkatzeta



→ **Eta gogoratu: Osteoporosiaren prebentzian eta tratamenduan dena ez da botika.**

Bibliografia:

Menopausia osteko osteoporosia: ezinbestekoa da adostasuna. INFAC. 2015;23(4):27-32

Denosumab y bisfosfonatos. Duración y seguridad. El ojo de Markov. 2017(63):1-4.

Egileak: Iñigo Aizpuru, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^o José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Karmele Pérez, Isabel Porras eta Juan Uriarte

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Hemen bildu den informazioaren helburu bakarra, hain zuzen ere, informazioa ematea da, eta ez zure osasun-profesionalak eman dizkizun gomendioak ordezkatzeta. Erabat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea.

